2006-II-10
Número 177. zenbakia

ELA

# astekaria

## EDITORIALA

### "Eraikitako" auzia

18/98 eta + auzia, 'eraikitako' auzia zela ikusten zen epaiketa hasi aurretik ere, Lopez Aguilar, Espainiako Justizia ministroak modan jarri berri duen hitza erabiltzearren. Eraiki ere, tesi bihurtutako hipotesi baten planoen arabera: "ezker abertzalearen" eremuan, aldez edo moldez, koka zitekeen edozer ETA zenaren hipotesiaren arabera, alegia.

Hipotesi-tesia diseinatu zutenek orain arte lortutakoarekin pozik egoteko motiborik badute, hedabideak itxi, enpresak zapuztu eta lagun asko gartzelaratzea lortu baitzuten. Urteen ondoren, noizbait heldu behar eta, hasi da epaiketa. Esan dezagun epaiketa, berez ere, zigorra dela epaituentzat, Madrilen egiten den epaiketa luzeak dakarzkien gastu, neke, bide-arrisku, lan arazo eta era guztietako eragozpenak kontuan hartzen badira.

Baina epaiketa ez da erosoa izaten ari Estatuarentzat ere, argitara ekartzen baitu sumarioko sekretuaren itzalean egindako lardaska itzela. Orain arte, epaiketa erakusten ari da, urteetan zehar, piezaz pieza, adabakiz adabaki, Frankestein-Garzonek muntatutako munstro baldarra ez dela logika juridikoak ezartzen duen bidetik ibiltzeko gauza, eta bide horren ertzetatik at dabilela, balantzaka eta noraezean.

Orain arte ikusitakoak nahiko izan behar luke auzitegiak epaiketa bertan behera utz zezan. Tamalez, ez da horrelakorik gertatuko, Entzutegi Nazionalaz eta "terrorismoaren aurkako borrokaz" ari baikara. Eta, egunen batean, emango duten epaia "zuzenbide estatuaren" funtzionamendu onaren erakusgarri dela esango digute López Aguilar eta enparauek. Prozesu osoa, frankismoa bultzatu zuen eta frankismoak estatuaren egituren muinetan txertatu zuen nazionalismo autoritarioaren erakusgarri besterik ez den arren.




## El 14 de febrero, concentraciones en Hegoalde y Estrasburgo en contra de la directiva europea de liberalización de servicios

# "HAY QUE PARAR LA DIRECTIVA BOLKESTEIN"

**ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, HIRU, EHNE, ELB y CGT sindikatuak otsailaren 14ean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan mobilizatuko dira barne merkatuko zerbitzuen inguruan Europako Parlamentuak bozkatuko duen zuzentarauaren aurka. Era berean, ELAren ordezkaritza bat egun horretan bertan Estrasburgon Europako Sindikatuen Konfederazioak deituta egingo den elkarretaratzean parte hartuko du; protesta ekintza arratsaldeko 17tan hasiko da, eta antolatzaileek adierazi dutenez, milaka lagunen parte hartzea espero da. Europa osoan espero dira Bolkestein izenarekin ezagutzen den direktiba honen aurkako protesta ekintzak. Izan ere, Europako Parlamentuak otsaiaren 15ean bozkatuko du proiektu honen inguruan. Proposamena onartua izango balitz, Europako Kontseilura joango da ekimena, bere behin betiko onarpenaren aurretik.**

Laura Gonzalez de Txabarri, responsable del Departamento Internacional de ELA, ha resaltado la trascendencia de esta directiva y ha adelantado que habrá que movilizarse a lo largo de todo el 2006 para evitar la liberalización total de prácticamente todos los servicios, tanto públicos como privados, lo que implica, en la práctica, un dumping social encubierto.

"El objetivo de esta directiva -asegura- es establecer un marco jurídico que suprima los requisitos y los criterios de precaución existentes para el establecimiento de

→




## Jornadas sobre Negociación Colectiva

# PREPARANDO LA LUCHA

ELA ha celebrado entre el 3 y el 10 de febrero en todas las comarcales –excepto Gasteiz, que lo hizo en diciembre- asambleas de delegados/as para debatir las líneas generales de la negociación colectiva para este año. Bajo el lema "Un buen convenio no cae del cielo" se ha realizado un balance de la situación de la negociación colectiva, marcando las prioridades del año.

Junto a salarios y jornada, el protagonismo en la reivindicación lo va a seguir teniendo la precariedad: lucha contra la temporalidad, la subcontratación y las discriminaciones de todo tipo. Luchar, incorporando cada vez con más intensidad, elementos prácticos de lucha contra las posiciones patronales.

Según el responsable de negociación colectiva, Adolfo Muñoz, "la negociación colectiva es el instrumento básico que tiene el sindicato para mejorar las condiciones de trabajo de nuestra gente y sabemos, que para obtener resultados, hay que prepararla muy bien. Es obvio que la patronal no va a regalar nada y que un buen convenio será siempre el resultado de un trabajo sindical organizado, capaz de hacerse respetar. Ese trabajo sindical depende del compromiso de nuestros delegados/as y del apoyo organizativo que desde la estructura del sindicato se debe prestar". En la jornadas se destacaron los conflictos que tenemos abiertos, concluyendo que en una mayoría el común denominador es la precariedad.



Tras las diferentes jornadas, se celebraron distintos actos reivindicativos. En Bilbo, los delegados/as se manifestaron ante la empresa UNIDENT, cuyas trabajadoras llevan un mes de huelga.

## sábado 18 de febrero. Bilbo

## Manifestación contra el juicio 18/98




empresas prestatarias de servicios en cualquier país de la Unión Europea y para la libre circulación de los servicios entre sus estados miembros".

Según explica la responsable de Internacional de ELA, "este texto, en la lógica del Acuerdo General sobre Comercio de Servicios (AGCS) de la OMC, es una incitación a la competencia entre los estados y pueblos; abre las puertas a la deslocalización de las empresas, la precarización de las condiciones laborales y el desmantelamiento del Estado de Bienestar, al facilitar la instalación de empresas en aquellos países de la UE donde la presión fiscal, las condiciones laborales y la legislación social o medioambiental estén bajo mínimos".

**"Ezinbestekoa da Europa osoko langileak Bolkestein zuzentarauaren aurka mobilizatzea"**

Se trata, por tanto, de una directiva que conlleva menos protección para las consumidoras y consumidores, pone en cuestión la diversidad cultural y tiende al desmantelamiento de las normas medioambientales y de sanidad pública. Un texto, en definitiva, que mercantiliza los servicios públicos, los supedita al interés de la empresa y el beneficio privado (especialmente el de las empresas multinacionales), y anula la capacidad reguladora de las instituciones democráticas y el derecho de todos los pueblos de Europa a la libre determinación, también en materia socioeconómica.

Laura Gonzalez de Txabarri insiste en la necesidad de explicar a la opinión pública el contenido de un proyecto de directiva que afecta directamente a toda la clase trabajadora vasca "porque estará por encima de la legislación española y encima de los convenios de cada sector o centro de trabajo".

Es necesaria la movilización social para hacer fracasar este proyecto, tanto a escala nacional como europea. "La movilización contra esta directiva es indispensable; y el haber conseguido parar recientemente y por segunda vez la liberalización de servicios portuarios nos reafirma en la lucha es el camino; aquí y en Europa".

## ¿QUÉ ES LA DIRECTIVA BOLKESTEIN?

**El objetivo de esta directiva es la liberación de servicios en el mercado interior europeo, servicios tanto privados como los llamados servicios de interés económico general, que son los que nosotros conocemos como públicos.**

**Este proyecto de directiva, desde que se conoció, ha generado enorme alarma; por dos aspectos principalmente: el primero, lo extremadamente amplio de su ámbito de aplicación: supone la liberalización de prácticamente todos los servicios, incluídos los servicios públicos. De esta forma, aunque la versión enmendada excluye la sanidad, otros sectores como la educación, los servicios sociales, el agua o la energía, por poner sólo algunos ejemplos de servicios esenciales, siguen entrando dentro de su ámbito de aplicación.**

**El otro aspecto preocupante es el del principio del país de origen, cuya aplicación implica que a un prestador de servicios se le aplica la normativa de su país de origen, es decir, si una empresa española va a Suecia a prestar un servicio se le aplica la normativa española y no la sueca. Esto, en puridad, conlleva un riesgo enorme de dumping social y una armonización a la baja de la legislación existente en los diferentes países; es la implantación de las banderas de conveniencia en el sector servicios y la invitación a que las empresas fijen su sede (seguramente bastará con un buzón) en los países de la UE menos exigentes en materia social, fiscal o medioambiental.**

## IRITZIA OPINION

# "MOBILIZAZIOA DA BIDEA"



**LAURA GONZALEZ DE TXABARRI**

***"La directiva Bolkestein implica, en la práctica, un dumping social encubierto"***

**Otsailaren 14ko astean, Europako Parlamentuan, Estrasburgon, "barne merkatuko zerbitzuen inguruko zuzentarau" proiektuaren lehenengo bozka egingo da.**

**Zuzentarau honen bidez marko juridiko bat ezarri nahi da. Aipatu marko juridiko honekin Europako Batasuneko edozein herrialdean zerbitzuak ematen dituzten enpresak Batasunean kokatzeko eta zerbitzuak estatukideen artean aske zirkulatzeko bete behar dituzten eskakizun eta irizpideak ezabatu nahi dituzte.**

**Jatorrizko herrialdearen printzipioan oinarrituta, "barne merkatuaren klausula" bihurtu dena, testu honek, MMEren Zerbitzu Merkataritzaren Akordio Orokorraren (ZMAO) logikan, presio fiskala, lan baldintza eta ingurugiro edo gizarte legeri kaxkarrak dituzten Europar Batasuneko herrialdeetan enpresak koka daitezen errazten du, estatu eta herrien arteko konpetentzia bultzatuz eta gainera enpresen deslekutzeari, lan baldintzen prekarizazioari eta Ongizate Estatuaren desegiteari ateak irekitzen dizkio.**

**Zuzentarau honek kontsumitzaileari babes urriagoa dakarkio, dibertsitate kulturala zalantzan jartzen du eta ingurugiro eta osasungintza publikoko arauak desegiteko joera du. Testu honek, azken finean, zerbitzu publikoak merkantilizatzen ditu, enpresen interes eta etekin pribatuaren ( enpresa multinazionalena bereziki) menpe jartzen ditu, eta instituzio demokratikoen gaitasun erregulatzailea eta Europako herri guztien libreki erabakitzeko eskubidea, alor sozio-ekonomikoa barne, baliogabetzen du.**

**Egitasmoak iritzi publikoaren aho-bateko gaitzespena jaso zuen arren, alboratua izatetik urruti, Europako Parlamentuan eztabaidatuko da ondoren Europako Batasuneko Kontseilura bideratzeko, non Batasuneko gobernuak biltzen diren.**

**Egoera honen aurrean, proiektu honek porrot egin dezan beharrezkoa izango da gizartearen mobilizazioa, nazio mailakoa zein Europa mailakoa.**

**Zuzentarau honen aurkako mobilizazioa beharrezkoa da. Horregatik, Euskal Herritik, hasieratik ekimen honen aurka agertu garen sindikatuak hurrengo otsailaren 14ean mobilizatzera deitzen dugu Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñan 12etan egingo ditugun kontzentrazioetan. Izan ere, guztion mobilizazioa beharrezkoa da proiektu honen aurka borrokatzeko.**

## German Kortabarria, ELAren idazkari nagusi albokoa

# "BIDEGABEKERIA IZUGARRIA BOTA DU JUSTIZIA MINISTROAK"



*"Con posiciones como la del ministro de Justicia no se puede avanzar en la resolución del conflicto"*

*"Que los sindicatos coincidamos en una declaración política es un paso adelante que puede facilitar otros procesos"*

*"Creemos que los hechos confirman el análisis de nuestro documento de setiembre "*

**Asko dira azken egunetan euskal gatazkaren inguruan hedabideetan irakurri eta entzun daitezkeen gaiak. ELAren idazkari nagusi alboko German Kortabarriak gai horien errepasoa egiten du.**

**-Otsailaren 18an, 18/98+ taldeak deituta, manifestazioa egingo da Bilbon. Epaiketa hasi zenetik gorabehera handiak izan dira prozesuan. Esaterako, gaur egun epaileak epaiketa atzeratzea erabaki zuen. Zein hausnarketa egiten du ELAk prozesu honen inguruan?**

-Garbi dago epaiketa honek beste batzuk bezala, funts eskasa duela, helburu politiko jakin batekin egindako epaiketa dela, inolako bermerik gabekoa. Zuzenbide estatuaren arauak hautsi dira; bide bakarra epaiketak eten eta bertan behera uztea da. Baina, Espainiako Entzutegi Nazionala bezalako epaitegi batez ari gara hitz egiten, astakeria handiena ere zilegi bihurtzen duen erakunde batez. Hori guztia salatzeko, garrantzitsua da datorren larunbatean, otsailak 18, Bilbon egingo den manifestazioarekin bat egitea.

**-Espainiako Gobernuko Justizia ministro Lopez Aguilarrek adierazi berri duenez, Espainiako Gobernuak ahal duen guztia egingo du Unai Parot edo haren antzeko egoeran dauden euskal presoak atera ez daitezen.**

-Preso horien aurkako kargu berriak "eraikitzen" ari direla azaltzea aspaldian esan den bidegakeria handienetakoa iruditzen zait. Argi erakusten du Estatuaren botere eta aparatuek interes eta jarrera politiko batzuen esanetara dauden tresna hutsak direla. Zuzenbide penala, kasu honetan, unean uneko komenentzien arabera erabili daitekeen tresna bezala azaltzen zaigu. Demokrazia batean eskandalua litzateke. Espainian ordea, badirudi, astakeria antidemokratiko handiena nork botako nor baino nor dabiltzala.

Litekeena da adierazpen horiekin ministro espainiarrak Fungairiñoren kargu uztearekin sortutako iskanbila baretu nahi izatea, baina PSOEren Gobernuak euskal gatazkari irtenbidea eman nahi badio hori baino sendotasun eta arriskatzeko gaitasun handiagoa erakutsi beharko du.

**-Otsailaren 11n, torturaren aurkako manifestazioa deitu zuten hainbat taldek Donostian. ELAk bat egin zuen deialdiarekin.**

-Torturaren gaiak gure Kongresuan ebazpen bat izan zuen. Uste dugu gai honetan gure presentzia jarrera horren ondorio dela. Torturaren inguruan, eragile politiko nagusiak eta hedabideek ez ikusiarena egitea erabaki dute, hau da, tortura babestea.

Tortura eta torturaren inguruan polizien eta epaileen artean dagoen konplota agerian geratzen ari da behin eta berriro. Nola ulertu bestela Unai Romanoren kasuan eman den epaia? Hori salatzeko eta tortura ahalbidetu eta babesten duten lege eta jokabideen deuseztea exigitzeko bat egiten dugu manifestazioarekin.

**-Iragan astean, LAB eta UGT sindikatuen arteko zuzendaritzen arteko bilerak zalaparta handia sortu du. Zein balorazio egiten du ELAk bilera horren inguruan?**

-Ondo deritzogu, nola ez, LAB eta UGT sindikatuek elkarren arteko harremanak izateari. Esku artean omen darabilten adierazpen politikoaz, berriz, LABek eman zigun asmo horren berri. Guk LABi esan genion ez genuela inongo arazorik prozesua errazteko balio dezaken agiri bat sinatzeko. Uste dut posible dela denon arteko adierazpen orokor bat adostea, bakoitzak bere estrategia politikoari uko egin gabe. ELAk iraileko agirian azaldu zuen estrategia hori eta, esan beharra dago, ordutik hona gertatutakoak arrazoia eman besterik ez digu egin.

**-ELAk izan al ditu azkenaldian harremanik UGTrekin?**

-Orain egun batzuk bildu gara UGTrekin. Bileran egoera sindikalaren errepasoari gainbegiratu bat eman genion, baina ez zen balizko agiri komun baten gairik aipatu. Bestalde, lan eta gizarte segurantzaren erreformaren inguruan ere jardun genuen. Bilera normala izan zen, giro onean garatu zena.

**-Eta, LABekin?**

-Jakina denez, aspaldian LABekiko harremanak gai zehatzetara egon dira mugatuak. Hala ere, badago asmoa datozen egunotan bi zuzendaritzen arteko bilera orokor bat egiteko.

## Labur Breves

### ● Oria-Goierriko ELAk Zumarragako Udalak Faustino Orbegozo Geriatrikoa ixteko asmoa duela salatu du

**Oria-Goierriko ELAk Zumarragako Udalak Faustino Orbegozo Geriatrikoa ixteko asmoa duela salatuko du bihar goizean Zumarragan. Oria-Goierriko ELAk kaleratutako ohar batek jasotzen duenez, "erakunde publikoek pertsona nagusiak zaintzeko zerbitzua pribatizatu nahi dute. Orain arte, Zumarragan, Udal Fundazioa den Faustino Orbegozoko Geriatrikoaren bitartez eskeintzen dute zerbitzu hau. Udalak zerbitzu hau ixteko asmoa du. Foru Aldundiak gerontológico berri bat egingo du, baina zerbi-tzua enpresa bati esleituko diote. Pribatizaioaren eraginak nabarmenak izango dira. Batetik zerbi-tzu garestiago Pertsona Nagusientzat; bestetik, 30 langile kaleratuko dituzte".**

### ● La Plantilla de L & P, de Zamudio, traslada su protesta a Zaragoza

**La plantilla de Leggett & Platt, de Zamudio, trasladó el 10 de febrero su protesta hasta Zaragoza, en contra del traslado que pretende realizar la empresa a esta localidad aragonesa y Jaén.**

**Esta es otra de las muchas movilizaciones que está llevando a cabo la plantilla, y que no cesarán hasta que la empresa abandone su propósito de trasladarse fuera de Euskadi.**

**La pretensión de la empresa es trasladarles a Zaragoza y Jaén el día 1 de marzo, con la clara intención de conseguir despidos baratos una vez que han conseguido y gastado las ayudas de las instituciones vascas.**

### ● Concentración contra el decreto que regula el sistema organizativo para el personal de la administración

**El 7 de febrero, representantes de los sindicatos ELA, LAB y UGT llevaron a cabo una concentración frente a Lehendakaritza en contra del nuevo decreto que regula el sistema organizativo para el personal de la administración vasca. Los representantes sindicales entregaron las firmas que en las últimas semanas han recogido entre el personal de la administración en contra de este decreto.**



## Unai Martinez, secretario general de ELA-Zerbitzuak

# "EROSKI APUESTA POR EL MARCO DE NEGOCIACIÓN ESTATAL"

**Eroski ha constituido recientemente una mesa de negociación de su grupo en Madrid con los sindicatos FETICO, UGT y CCOO. ELA denuncia que ésto supone apostar por el ámbito estatal en vez del ámbito vasco.**

**-¿Qué supone la constitución de esa mesa?**

-Eroski ha compuesto en Madrid la mesa negociadora del convenio para los supermercados del grupo Eroski. De esta manera, Eroski continúa la senda de otras grandes cadenas comerciales, que utilizan la debilidad del marco estatal y las posturas de determinados sindicatos para firmar acuerdos a la baja. Resulta sorprendente, que Eroski, una empresa de aquí, apueste por los ámbitos estatales, pero en ésto no se diferencia del resto de grandes cadenas comerciales. El objetivo siempre es el mismo: el beneficio. Para ello, claro, les da igual las condiciones laborales de los trabajadores/as.

> *"Eroskik Espainiako hitzarmena ezarri nahi die Tuterako langileei"*

**-¿Qué propone ELA?**

-ELA tiene su representación y ámbito de negociación en Tudela. La gente sabe que perder la cercanía en la negociación es perder condiciones laborales. Los ámbitos estatales siempre ofrecen peores condiciones a los trabajadores y trabajadoras. Nosotros tenemos muy claro que vamos a estar con la gente en la pelea. Tudela tiene que mantener su convenio propio. Al fin y al cabo, es lo que quieren los trabajadores/as y lo que quiere este sindicato.

**-¿Se puede decir que Eroski hace lo mismo que la directiva Bolkestein, pero a la inversa?**

-Sí. Es paradógico que mientras miles de personas se movilizan contra esta directiva, Eroski haga lo que aplica esa directiva, aunque a la inversa. La directiva recoge el principio del país de origen, cuya aplicación implica que a un prestador de servicios se le aplica la normativa de su país de origen. Esto conlleva un riesgo de dumping social y una armonización a la baja de la legislación existente en los diferentes países. Trasladándolo a este caso, Eroski quiere aplicar las condiciones laborales del convenio estatal a los trabajadores/as de Tudela. Por supuesto, esto supondrá peores condiciones laborales.

## Labur Breves...

www.ela-sindikatua.org

### ● Acuerdo en el convenio de comercio de jugueterías de Gipuzkoa

ELA y la Federación Mercantil han logrado un acuerdo en el convenio de Comercio de Jugueterías de Gipuzkoa para los años 2.004, 2.005 y 2.006.

ELA valora de manera muy positiva un acuerdo que demuestra que cuando ambas partes tienen vocación negociadora el acuerdo es posible. Particularmente importante es el logro del abono por parte de la patronal del pago de los salarios con efectos retroactivos.

El acuerdo evidencia, una vez más, que en Gipuzkoa, donde no esta ADEGI, se logran acuerdos satisfactorios. Con este acuerdo, los convenios del comercio con vigencias atrasadas en Gipuzkoa, son exclusivamente los negociados por ADEGI, la patronal que está batiendo todos los récord de incapacidad a la hora de lograr acuerdos.

### ● Manu Robles-Arangiz Institutuaren bilera Baionan

ELAn prestakuntza sindikalaren ardura duen Manu Robles-Arangiz fundazioko lan talde osoa Baionan bildu da joan den ostegun honetan (otsailak 9); Bidasoaren alde bietara fundazioak dituen egitasmoez hitz egin zuen.

Izan ere, duela urtebete luze, fundazioak Baionan ordezkaritza bat zabaldu zuen (urtarrilaren 27an inauguratu zen ofizialki), eta han hainbat gizarte- eta kultur-talderentzako topagune bilakatzen ari da; gainera, oihartzun handia duen prestakuntza programa handi bat ematen hasi da, eta Enbata aldizkariarekin lankidetza hitzarmen bat ere egin du, bere lanaren berri emateko.

### ● Mikel Aramendi: "Gaur egun gerrate nuklear bat posible da"

Ameriketako Estatu Batuak, Txina, Europako Batasuna, Nazio Batuak ... Munduko hainbat eskualde eta boterearen gune handiak zertan diren aztertu zuen bere hitzaldian Mikel Aramendi nazioarteko adituak joan den astelehenez Bilbon., ELAko arduradun talde batentzat eman zuen saioan.

Oso interesgarria izan zen Aramendik egungo nazioarteko errealitateaz azaldu zuena, bere informazioak osatzeko tokian tokiko gizarteari eta egitura politikoari buruz datu ugari eman baitzuen; AEBk eta Europako hainbat estatuk Iranekin oraintsu tirabirak dituztela-eta, adibidez, "gerra nuklear bat gaur posible da" esan zuen, "eta izatekotan Asian litzateke", gero eta estatu gehiagok baitaukate arma atomikoak eraiki eta erabiltzeko aukera (Sobiet Batasunaren gainbehera eta hainbat tokitan arma hauek egiteko teknologia saldu duen Pakistango Khan zientzilaria medio).



Franqueo concertado
nº 08/207

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org